

## Jesus eta Tomas.

Hamabietarik bat, Tomas (*hitz horrek erran nahi du: biritxi*) ez zen heiekin, Jesus bizirik agertu zenean bere lagunak atzinean. Bertze dizipuluek erran zioten: "Jauna ikusi dugu." Harek aldiz ihardetsi: "Ez badut ikusten haren eskuetan itzeen marka, ez badut emaiten ene erhia itzeen tokian, ez badut ezartzen ene eskua haren sahetsean, ez dut sinetsiko."

Handik zortzian, dizipuluak berriz etxean zauden, eta Tomas ere heiekin. Etorri zen Jesus, ateak hetsirik zirela, eta heien erdian zagola, erran zioten: "Bakea zueri!" Gero erran zion Tomasi: "Hurbil hunat erhia, eta ikus ene eskuak; hurbil eskua eta ezar ene sahetsean, ez izan sinesgogor, bainan izan sinesdun." Tomasek ihardetsi zion: "Ene Jauna eta ene Jainkoa!" Jesusek erran zion: "Ikusi nauzulakotz duzu sinetsi? Dohatsu ikusi gabe sinesten dutenak."

2gun h1rt1n, 1p5st5l4 b1t f1lt1  
z2n, T5m1s 2z z2n h5r.

H1nd3k z5rtz31n, J2s4s  
b2rr3iz h232r3 1g2rt4 z2n,  
T5m1s2k 2z1g4t4 z42n. Z2r  
p5z1 !


H13n z2n p5z3k n4n 2rr1n  
b13tz35n: «N2r2 J14n1 2t1 n2r2  
J13nk51 ! »

J2s4s p3zt41 b2z1l1, g4 2r2  
J13nk5 s2m2 2d5 1l1b1 g3r1,  
J13nk51r2ntz1t b2t32r2k5 b3z3.

a= e= i=3 o= u=4

3-SOS BIRUS ! Birus batek bokalak jan ditu:  
atxeman itzazu  
(Gero, lauki hori motz eta ezar ezazu zure  
katiximako kaierean)

5-MELI-MELO: ezar itzazu behar diren hitzak marrazki bakoxtaren pean



Jesusek orduan : « dohatsu ikusi gabe sinesten dutenak ! »

Dizipuluak etxean zauden, Jesus heien arterat etorri zen .

Erran zioten: « Bakea zuekin ! »

Tomasek erran zion orduan : « Nere Jauna eta nere Jainkoa ! »

Tomasi erran zion: « ez izan sinesgogor, IZAN SINESDUN ! »

6 -Marrazki hauek margo zatzu:

